

## XXXI. IGANDEA URTEAN ZEHAR (C)

**Otoitza**

Jainko ahalguztidun errukitsua,  
zure graziari esker,  
ongi zerbitzitzen zaituzte fededunek;  
egizu, arren, Zuk agindutako ondasunetara  
eragozpenik gabe joan gaitezela.  
Zure Seme Jesu Kristo.

I. IRAKURGAIA: Jak 11, 23–12, 2

*Guztiak erruki dituzu,  
den guztia maite baituzu.*

Jakinduriaren liburutik

Jauna, mundu guztia zure aurrean,  
pisuan hondar-ale bat bezala da,  
lur gainean goizeko ihintz-tanta bat bezala.  
Guztiak erruki dituzu, dena dezakezulako;  
bekatuari ezikusi egiten diozu,  
gizakiek damu izan dezaten.  
Den guztia maite duzu,  
eta ez duzu gorroto, Zuk egindakorik ezer;  
ezer gorroto izan bazenu, ez zenuen egingo.  
Eta nola iraun zezakeen ezerk,  
Zuk nahi izan ez bazenu?  
Edo nola izaten jarraitu,  
Zuk deitua ez denak?  
Guztiei, ordea, barkatu egiten diezu,  
zureak baitituzu,  
bizidunen adiskide zaren Jaun horrek.  
Gauza guztietan dago zure arnasa hilezkorra;  
ezarian zuzentzen dituzu erortzen direnak;  
bekatu egin dutenei  
beren bekatura gogoratzen diezu,  
bihotz-berri daitezen,  
eta Zuregan, Jauna, sinets dezaten.

ERANTZUN SALMOA: Sal 144, 1-2. 8-9. 10-11. 13cd-14

R/. **Ene Jainko, ene Errege,  
bedeinkatuko dut zure izena betiere.**

Edota **Aleluia.**

Goraipatuko zaitut, ene Jainko, ene Errege,

bedeinkatuko dut zure izena betiere.  
Egun oro zaitut bedeinkatuko,  
zure izena menderen mende dut goretsiko. R/.

Kupibera da Jauna eta errukiorra,  
berant-haserre eta guztiz onbera.  
Ona da Jauna guztientzat,  
errukior, Berak egin dituenentzat. R/.

Jauna, zure lan guztiek ospa zaitzate,  
zure zintzoek bedeinka zaitzate.  
Zure erregetza zein bikain den aitor bezate,  
zure ahal izateaz hitz egin bezate. R/.

Leiala da Jauna bere hitz guztietan,  
zintzoa bere lan guztietan.  
Jaunak erortzear diren guztiak ditu sendotzen,  
eta konkortuak zutitzen. R/.

II. IRAKURGAIA: 2 Ts 1, 11–2, 2

*Jesus gure Jauna goretsia izan bedi zuengan,  
eta zuek Harengan.*

San Paulo Apostoluak Tesalonikarrei

Senideok: Zuen alde otoitzean ari gara beti, gure Jaungoikoak bere deiaren gai egin zaitzaten, eta bere ahalmenez burutu ditzan, zuek onerako duzuen nahi guztia eta zuen sinesmenaren egotekoa. Horrela Jesus gure Jauna goretsia izango da zuengan, eta zuek Harengan, gure Jaungoikoaren eta Jesus Jaunaren graziaren arabera.

Jesu Kristo gure Jaunaren azken etorrerari buruz, eta gu Harekin elkartzeari buruz, hau eskatzen dizuegu: ez dezazuela nolana bururik gal, eta ez zaitez tala ikara ere, Jaunaren eguna gainean omen dela dioen espiriturik, edota hitzik, nahiz guk egindako gutunik badelakoan.

EBANJELIOA: Lk 19, 1-10

**Aleluia:** Jn 3, 16

R/. Aleluia.

V/. Hain maite izan baitu Jaungoikoak mundua,  
bere Seme bakarra eman dio;  
Hari sinesten dionik inor gal ez dadin,  
baizik eta betiko bizia izan dezan. R/.

*Gizonaren Semea, galdua zegoena bilatzera  
eta salbatzera etorri da.*

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik

Aldi hartan, sartu zen Jesus Jerikon, eta herrian barrena zihoan. Bazen han Zakeo izeneko gizon bat, zergalarien buru zena, eta aberatsa. Han zebilen, Jesus zein ote zen nola ikusiko; baina ezin zuen, jendetza handia baitzen; bera, berriz, txikia; eta, lasterka joanda, basapiku baten gainera igo zen, Jesus ikusteko, handik igaro behar baitzuen.

Jesusek, toki hartara hurbildu zenean, begiak jaso eta esan zion: «Zakeo, jaitsi zaitez agudo, gaur zure etxean gelditu behar dut eta». Zakeo berehala jaitsi zen, eta oso pozik hartu zuen bere etxean. Eta ikusi zuten guztiak marmarka hasi ziren, gizon bekatari baten etxean sartu zelako.

Zakeok, ordea, zutik jarrita, honela esan zion Jaunari: «Jauna, nire ondasunen erdiak behartsuentzat ematen ditut; eta inori bidegabez ezer kendu badiot, lau halako bihurtzen diot».

Eta Jesusek esan zion: «Gaur salbamena sartu da etxe honetan; hau ere Abrahamen seme baita. Izan ere, Gizonaren Semea, galdua zegoena bilatzera eta salbatzera etorri da».

### **Oparigaien gainekoa**

Eskaintza hau egin bedi, Jauna,  
Zuretzat opari garbi  
eta guretzat zure errukiaren iturri santu.  
Jesu Kristo.

### **Jaunartze ondorengoa**

Gero eta gehiago agertu bedi gugan, Jauna, zure indarra;  
hartu ditugun sakramentuez sendoturik,  
beroiek agintzen dizkiguten ondasunak lortzeko  
zure graziak gai egin gaitzan.  
Jesu Kristo.